



Uztailak 2, 3 eta 4



9:00-14:00



Donostiako EHU

5. Haurtzaroaren bidelagun Montessori ikuspegitik

Ikastaro honen helburua gaur egungo irakasle Montessori pedagogiaren hurbilpen teoriko-praktikoa eta bizipenezkoa eskaintzea da. Horretarako, pedagogia aktibo honen filosofiaren inguruko ibilbidea egingo dugu, haurren garapenean geldialdi bat eginez. Haurren benetako beharrak (fisikoak, psikikoak eta afektiboak) ulertuz, giro prestatuaren garrantzia aztertuko dugu, garapen-etapa bakoitzera egokitzeko. Gero bidelagunaren egitekoaren inguruan hausnarketa sustatuko dugu, eta azkenik, hiru lan-arlo ezagutuko ditugu, materialekin manipulativoki lan eginez.



Haur Hezkuntzako
2. zikloko irakasleentzat

LANDUKO DIREN GAIAK

- Montessori filosofia eta metodologiaren oinarriak.
- Haurren garapen fisikoa, psikikoa eta afektiboa Montessori ikuspegitik.
- Giro prestatua: fisikoa eta psikikoa, eta horien garrantzia.
- Bidelaguntza: nola pasa andereño izatetik bidelagun izatera?
- Helduaren rola: harremanak zaindu, ikaskuntzak errazteko.
- Mugak irmotasun eta goxotasunez jartzeko gakoak.
- Zentzumen-arloaren oinarriak eta ekintza praktikoak.
- Matematika lan arloaren oinarriak eta ekintza praktikoak.
- Irakurketa eta idazketa prozesua kontzientzia fonologikoan eta metodologia aktiboan oinarrituta.



Maite Ruiz Garcia

Pedagogo, Haur Hezkuntzako eta Premia Bereziko Lehen Hezkuntzako irakaslea, 0-6 urte bitarteko Montessori gidaria eta hezkuntza emozionalean masterduna.

Eman izena

